



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko abenduaren 30a

116. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, eraginkortasunari, energia aurrezteari eta Kyotoko protokoloaren ondorioz hartutako konpromisoak betetzeari dagokienez 2005-2008 eperako Nafarroako energia planean jasotako helburu eta jarduketak zein diren jakiteko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da errege dekretuan ezarritakoa, Nafarroako bi hizkuntza ofizialak nortasun agiri nazionalen erabiltzeari dagokionez, bete dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko deialdietako merezimenduen baremoetan, hizkuntzen jakintzaren balorazioan, italiara ere sar dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da alokairuko etxebizitza babestuak egite aldera lurzorua erosteko neurriak, udalekin batera, har ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Sahararren autodeterminazio erreferenduma, Nazio Batuen Erakundearen babespean, hainbat arinen egitearen aldeko adierazpen politikoa. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuak San José zentroan dauden gabezien berri izan duen jakiteko, foru parlamentari Fernando María Puras Gil jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak Pablo Sarasate Fundazioak duen arazo larria –Nafarroako Orkestra Sinfonikoan eragin zuzena du– konpontzeko egin behar duenari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (8. or.).
- Galdera, “Martín Azpilicueta” sariko edizio berriak deitzeko dagoen asmoari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (9. or.).
- Galdera, miaketak egiteko gaixoak beste ospitale batzuetara bideratzeari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (9. or.).

- Galdera, zenbait osasun zentrotan izan diren jarduketa edo zerbitzu finantzatuak xehekatzeari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak edo beste edozein elkarte edo erakunde publikok Inquinasa enpresari kokapen berria bilatze aldera egindako zuzemenei buruzkoa, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Cintruénigoko Udalak 2. industrialdeko 2. faseko urbanizazioa egiteko dirulaguntza eskatu zuen eta eman zitzaion jakiteko, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Cintruénigoko DBH ikastetxeko gimnasioa eraikitzeke esleipena egitean jarraitutako prozedurari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Alloko laguntza zentroko obretarako egin behar duen benetako ekarpenari buruzkoa, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Comptos Ganberaren objektibotasuna zalantzan jartzeko dituen datuei buruzkoa. Erretiratutako galdera (14. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2007rako (15. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren ordutegi ofiziala 2007rako (16. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Jabeldura, eraginkortasunari, energia aurrezteari eta Kyotoko protokoloaren ondorioz hartutako konpromisoak betetzeari dagokienez 2005-2008 eperako Nafarroako energia planean jasotako helburu eta jarduketak zein diren jakiteko.**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko jabeldura aurkeztu du: "eraginkortasunari, energia aurrezteari eta Kyotoko protokoloaren ondorioz hartutako konpromisoak betetzeari dagokienez 2005-2008 eperako Nafarroako energia planean jasotako helburu eta jarduketak zein diren jakiteko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**JABELDURAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari Osoko Bilkurarako:

Nafarroako Gobernua 2005-2008 urteetarako energia plana prestatzeko lanak zuzentzen ari da.

Hori dela eta, gure parlamentu-taldeak jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, 2005-2008 eperako Nafarroako energia planean jasotako helburu eta jarduketak zein diren jakiteko, eraginkortasunari, energia aurrezteari eta negutegi efektuko gasen emisioari buruzko Kyotoko protokoloaren ondorioz hartutako konpromisoak betetzeari dagokienez.

Iruñean, 2006ko abenduaren 19an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da errege dekretuan ezarritakoa, Nafarroako bi hizkuntza ofizialak nortasun agiri nazionalean erabiltzeari dagokionez, bete dezan.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Espainiako Gobernua premiatzen da errege dekretuan ezarritakoa, Nafarroako bi hizkuntza ofizialak nortasun agiri nazionalean erabiltzeari dagokionez, bete dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 193. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nortasun agiri nazionala eta haren sinadura elektronikoaren ziurtagiriak ematea arautzen duen abenduaren 23ko 1553/2005 Errege Dekretuaren 11.3 artikulua haxe xedatzen du: "Testu finkoak gaztelaniaz adieraziko dira, eta beste hizkuntza

ofizial bat duten autonomia erkidegoetan ematen direnak, hizkuntza horretan ere adieraziko dira."

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 9. artikuluan ondokoa xedatzen da: "1. Gaztelania Nafarroako hizkuntza ofiziala dela. 2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunean. 3.- Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du."

Xedapen horien arabera, ondoriozta daiteke nortasun agiria Nafarroako Foru Komunitatean ematen denean, testu finkoak gaztelaniaz eta euskaraz izan beharko lituzkeela.

Hala ere, nortasun agiria ematen duen Nafarroako bulego bakarria Iruñean dago, eta ez ditu nortasun agiriak bi hizkuntzetan ematen, soilik gaztelaniaz baizik, nahiz eta herritar batzuek hala eskatu duten espresuki.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ahalik eta lasterren bete dezan Nafarroako Foru Komunitatean, abenduaren 23ko 1553/2005 Errege Dekretuaren 11.3 artikuluan xedatutakoa, nortasun agiria Nafarroako bi hizkuntzetan emateari dagokionez.

Iruñean, 2006ko abenduaren 15ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko deialdietako merezimenduen baremoetan, hizkuntzen jakintzaren balorazioan, italiera ere sar dezan.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko deialdietako merezimenduen baremoetan, hizkuntzen jakintzaren balorazioan, italiera ere sar dezan".

Legebiltzarrak 2006ko abenduaren 22an egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko azaroaren 6ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitza babestuak egite aldera lurzorua erosteko neurriak, udalekin batera, har ditzan.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitza babestuak egite aldera lurzorua erosteko neurriak, udalekin batera, har ditzan".

Legebiltzarrak 2006ko abenduaren 22an egingadako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko azaroaren 6ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Sahararren autodeterminazio erreferenduma, Nazio Batuen Erakundearen babespean, hainbat arinen egitearen aldeko adierazpen politikoa**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Lehenik eta behin, Nafarroako Parlamentuak berresten du sahararren autodeterminaziorako oinarritzko eskubidea; izan ere, kolonizatutako herrialde guztiei aitortzen zaien eskubide besterezina da, eta erreparorik gabe defendatzen da Nazio Batuen Erakundearen kasuan kasuko ebazpen guztietan.

Horren haritik, Nafarroako Parlamentuak bere interesa eta poza agertzen du iragan 2006ko abenduaren 14an, osteguna, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak bere 61. bilkuran gehiengo zabalarekin onetsi zuen ebazpena dela eta. Horren arabera, Mendebaldeko Saharako gatazka deskolonizazio arazo bat da, Mendebaldeko Saharako auziaren konponketak nazioarteko legeriarekin bat etorri behar du, eta konponbide egokiaren oinarria kolonizatutako herrialde eta herrien independentzia aldarrikapenari buruzko

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1960ko abenduaren 20ko 1514 ebazpena izan behar da, eta, halaber, bat etorri behar du 1991ko bake planarekin –Baker plana izenez ere ezaguna– eta 2003ko uztailaren 31n Segurtasunerako Kontseiluak onetsitako 1495 ebazpenarekin.

Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiaren ebazpen berri honek berresten du Nazio Batuen Erakundeak duen ardura Mendebaldeko Sahararen deskolonizazioa lortzeko prozesuan, eta hori kontuan hartu behar du Segurtasunerako Kontseiluak; izan ere, berari dagokio Marokori nazioarteko legeria eta Nazio Batuen Erakundeak deskolonizazioari buruz onetsitako gutuna errespetarazteko betebeharrak, eta lan egin behar du nazioarteko legeak inposatzeko eta Rabateko gobernuak eta erregeak Segurtasunerako Kontseiluak onetsitako ebazpenak aintzat har ditzaten. Halaber, gogorazi behar die soilik Nazio Batuen Erakundearen bake planaren aplikazioa dela sahararrek autodeterminaziorako eskubidea modu askean eta presiorik gabe baliatzea bermatzen duen bidea.

Hori dela eta, dei egiten diogu Nazio Batuen Erakundeari, beharrezkoak diren bideak jar ditzan, berak onetsitako Mendebaldeko Saharari buruzko ebazpenak modu osoan eta arinean aplikatzeko, eta Marokok eta abentura kolonialista horretan lagun dituen herrialdeek ebazpen horiek errespetatu ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du lurralde okupatueta sahararrek bizi duten egoera dela eta, eta batez ere Marokoren errepresioaren biktimen egoera dela eta. Egoera horretan, Nafarroako Parlamentuak salatzen ditu Marokoko agintariak lurralde okupatuetan eginitako giza eskubideen urraketa masiboak, baita tortura sistematikoa eta sahararren aurkako errepresaliak. Halaber, emakumeen aurkako indarkeria sexista salatu nahi dugu; izan ere, desagertutako pertsonen %35 emakumeak dira.

Nafarroako Parlamentuak salatzen ditu Marokok Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan ezarritako zentsura eta blokeoa, lurralde horietan sahararren aurkako errepresio politika baliatzen baitu. Izan ere, lurralde horri Marokoko gobernuak ezarritako blokeoaren menpe dago, eta, aldi berean, Marokok, bere poliziaren bidez, nazioarteko komunitateari eragozten dio sahararrek bizi duten egoera latz eta onartezinari buruzko informazio objektiboa izan dezan. Nazio Batuen Erakundeari, Europar Batasunari eta gobernuak kanpoko erakun-

deei dei egiten diegu, gertaera horien aurrean dagokien ardura har dezaten, sahararren babes eraginkorra ziurtatzeko, sahararren giza eskubideen aurkako eraso larritzat jo daitekeen egoera horren aurrean.

3. Estatu espainiarrak, Saharako aurreko potentzia okupatzailea baita, ezin dio bere ardurari uko egin sahararrek pairatzen ari diren tragedia honen aurrean. Nafarroako Parlamentuak Sahararekin dituzten betebeharrak historiko eta moralak gogorarazten dizkie estatu espainiarreko erakunde guztiei; halaber, Espainiako Gobernuari eskatzen dio gatazka horretan gaur egun aplikatzen duen politika lehenbailehen berraztertu eta gizarte zibiliko zati handi baten eskaerari erantzun diezaion; azkenik, sahararrek erreferendum aske eta demokratikoaren bidez autodeterminazioa lortzeko duten eskubideari babes erabatekoa, argia eta aktiboa eman diezaion eskatzen dio.

4. Nafarroako Parlamentuak egiaztatu ditu Saharako errefuxiatuen bizitza baldintza eskasak, eta elikadura, osasuna eta hazkuntza bezalako lehentasunezko arloetan egoera dramatikoak dela ikusi du. Hori dela eta, bere kezka agertzen du ematen zaien laguntza humanitario urriagatik, eta eskatzen die Nazio Batuen Erakundeko agentziei Saharako errefuxiatuen aldeko programak lehenbailehen eta modu eraginkorrean berraktiba ditzaten. Gure ustez, “ahulentzat” jotzen diren 90.000 errefuxiatuei soilik laguntza humanitaria emateko erabakia bidegabea da eta berraztertu beharko litzateke; izan ere, 160.000 errefuxiatu dira premia gorrian bizi direnak, eta haiek ere laguntza humanitaria jasotzeko eskubidea dute.

5. “Paz y Libertad en el Sahara – Bakea eta Askatasuna Saharan” parlamentu-taldearen arteko taldeko foru parlamentarioek parte-hartze aktiboa izan dute iragan azaroan Gasteizen eginitako Saharako herriaren aldeko Europako 32. Konferentzian, eta bat egiten dute bertan Mendebaldeko Sahararen alde onetsitako ondorioak.

Horrekin lotuta, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du 2007. urtea SEADekiko elkartasuneko nazioarteko urtea eta Saharako lurralde okupatueta independentziarako herri-erresistentziari laguntza emateko urtea izendatzearekin. Halaber, haren programa orokorreko jardueretarako laguntza emateko konpromisoa hartzen du.”

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuak San José zentroan dauden gabezien berri izan duen jakiteko.**

*FORU PARLAMENTARI FERNANDO MARÍA PURAS GIL JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Fernando María Puras Gil jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak San José zentroan dauden gabezien berri izan duen jakiteko. Galdegileak eskatu du Foru Araubide Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fernando M.<sup>a</sup> Puras Gilek, Legebiltzarreko Erregela-

menduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

San José zentroan ezgaitasun fisiko eta psikiko larriak eta sakonak dituzten pertsonak artatzen dira.

Zentro horretan gabezia larriak antzeman dira eta, horien ondorioz, egoera zaila da eta kezka sortu da erabiltzaileek jasotzen duten laguntzari buruz.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak izan al du San José zentroan dauden gabezien berri? Hala bada, zein da jasotako txostenen edukia? Zer neurri hartu dira aipatu gabeziak konpontzeko?

Iruñean, 2006ko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Fernando M.<sup>a</sup> Puras Gil

## **Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak Pablo Sarasate Fundazioak duen arazo larria –Nafarroako Orkestra Sinfonikoan eragin zuzena du– konpontzeko egin behar duenari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak Pablo Sarasate Fundazioak duen arazo larria –Nafarroako Orkestra Sinfonikoan eragin zuzena du– konpontzeko egin behar duenari buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo kontseilariak ahoz erantzun dezan Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran.

Pablo Sarasate Fundazioko kudeatzailearen jokabideak estutasun larrian jartzen ari da Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren etorkizuna.

Zuzendaritzak “errefortzu berezi” deitzen dituenak kontratatzen ari dira oskestran jotzeko, eta errefortzuko langile horiek plantillako musikariek baino askoz gehiago kobratzen dute, kasu batzuetan haiek halako hiru. Horretaz gain, tratu berezia ematen zaie; hain zuzen, Pablo Sarasate Fundazioak ordaintzen ditu haien joan-etorriak, ostatua, taxiak, afari bereziak eta abar. Eta hori guztia gertatzen den bitartean, plantillako solistei egun libre nahitaezkoak ematen zaizkie.

Jakin dugu horrelakorik ez dela gertatzen Espainiako orkestretan.

Kontratutako pertsona horietakoren batek orkestrako kideak jazarri eta iraindu ditu, eta ez zuzendari artistikoak ez kudeatzaileak ez dute ezer egin arazo horiek konpontze aldera. Aldiz, errefortzuak kontratatzen jarraitu dute.

Arazo larri horiei gehitu behar zaio han egiten den langileei buruzko politika bat-batekoa. Lanpostuak agertu eta desagertu egiten dira, jakinaz gabe; beste lanpostu batzuk betetzeko, berriz, aldi baterako kontratuak eskaintzen dira, eta ondoren, bestelako deialdirik egin gabe, kontratu horiek behin betiko bihurtzen dira. Are gehiago, biolin postu bat betetzeko barneko proba egiteko deialdia egin eta data jarri, eta proba egun bat lehenago egin da, abisurik eman gabe.

Kudeatzailea egiten ari den langileei buruzko politikan adiskidekeria eta obskurantismoa dira nagusi. Hitzarmen kolektiboa modu larrian urratu da; izan ere, zuzendari titularrari kontratua berritu zaio, plantillarekin kontatu gabe.

Kultura kontseilaria Pablo Sarasate Fundazioko lehendakaria da, eta fundazio horrek 4.500.000 euroko ekarpen ekonomikoa dauka esleituta aurrekontu orokorretan. Eta ikusi dugunez, diru hori ez da kontrolatzen, ezta langileen –eta, orobat, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren eta haren izen onaren– kaltetan jarduten duen kudeatzailearen jokamolde bidegabea ere.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Zer egin behar du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak Pablo Sarasate Fundazioak duen arazo larria –Nafarroako Orkestra Sinfonikoan eragin zuzena du– konpontzeko?

Iruñean, 2006ko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia



## **Galdera, “Martín Azpilicueta” sariko edizio berriak deitzeko dagoen asmoari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, “Martín Azpilicueta” sariko edizio berriak deitzeko dagoen asmoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregulamentuan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2006ko abenduaren 15eko 150. Nafarroako Aldizkari Ofizialean Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren azaroaren 10eko 383/2006 Foru Agindua argitaratu zen. Haren bidez, Nafarroako administrazio publiko eta sektore publikoari buruzko azterlan eta ikerketetarako 2006ko “Martín Azpilicueta” III. saria ebatzi zen. Saria eman

gabe geratu da, eta, azaltzen denez, lan bakarra aurkeztu zen eta hura ez zen onartu, ezarritako betekizunak betetzen ez zituelako.

Sari horren aurreko bi edizioetan antzeko zer-bait gertatu zen. 2005. urtean, hiru lan aurkeztu ziren, eta, epaimahaiaren ustez, haietako batek ere ez zuen saria ematea merezi; hori dela eta, saria eman gabe geratu zen (azaroaren 25eko 155/2005 Foru Agindua, 2005eko abenduaren 21eko 152. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua). 2004. urtean, berriz, zortzi lan aurkeztu ziren, eta epaimahaiak lehenengo bi sariak eman gabe utzi zituen, bere ustetan aurkeztutako lanetatik batek ere ez zuelako ematea merezi. Aldiz, lan haietako baten aipamen berezia egitea proposatu zuen (azaroaren 25eko 186/2004 Foru Agindua, 2004ko abenduaren 15eko 150. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Ikusirik sari horren eratzek arrakasta eskasa izan duela, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

“Martín Azpilicueta” sariko edizio berriak deitzeko asmoa al du? Hala bada, deialdiaren xedea eta baldintzak birplanteatzeko asmorik ba al du?

Iruñean, 2006ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

## **Galdera, miaketak egiteko gaixoak beste ospitale batzuetara bideratzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, miaketak egiteko gaixoak beste ospitale batzuetara bideratzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Klinika Unibertsitariora gaixoak bidaltzeari buruz eginiko galderen erantzunean badira argitu beharreko zenbait alderdi. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Azterketei buruz eskatu genituen datuetatik, soilik martxotik uztaileira bitartekoak bidali dira.

– 2006 urte osoan azterketak egiteko bidali dituzten gaixoen kopurua nahi dugu, eginiko azterketak eta haien kostua zehaztuta.

2.- 2003tik hona ebakuntzak egiteko bidali diren gaixoen koadroan azaltzen denez, 2003an 168 bidali ziren, 1.167.019,59 euroko kostuarekin, eta, 2006. urtean, berriz, 471 bidali dira, 1.574.039,29 euroko kostuarekin.

– Akatsen bat al dago 2006. urteari dagokion fakturazioan, edo 471 ebakuntzei dagokien zenbatekoaren zatiren bat ez da oraindik ordaindu? Hala bada, zenbat ebakuntza daude ordaintzeke eta zer zenbateko uste da gehitu behar dela guztira?

3.- Erradioterapia tratamendua jasotzeko bidali diren gaixoei buruzko datuei dagokienez, bidalitako gaixoen kopurua eta hilabeteko fakturatutako tratamenduak ez datoz bat.

– Zein da bidalitako gaixo kopuruaren eta hilabeteko fakturatutako tratamendu kopuruaren arteko erlazioa? Hileko kostuak hilabete bakoitzeko tratamendu guztien fakturazioari egiten dio erreferentzia?

Zergatik ez datoz bat 2006an erradioterapia tratamenduak jasotzeko bidali diren gaixoen kopuru osoa (258) eta 2006ko urtariletik urrira arte bidalitakoena (232)?

Iruñean, 2006ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, zenbait osasun zentrotan izan diren jarduketa edo zerbitzu finantzatuak xehekatzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Mirandak andreak egindako galdera, zenbait osasun zentrotan izan diren jarduketa edo zerbitzu finantzatuak xehekatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

“Beste zentro batzuetan emandako laguntza” izeneko kontusailaren aurrekontu bateratu eta betetatakoari buruz igorritako erantzunean, kostu-

ari buruzko informazioa ematen da, ez ordea zentro bakoitzean eginiko eta finantzatutako jarduketei buruzkoa.

Hori dela-eta, honakoa galdetzen dugu:

1.- Zein da hauetako zentro bakoitzean finantzatu diren jarduketan eta zerbitzuen zehaztapena?

- San Miguel klinika
- Donostiako Onkologia Institutua
- Neuroangiografía terapéutica, S.L
- Unidad Aragonesa Salud, S.L.
- José Carreras fundazioa
- Clínica Isidora, S.A.
- Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala
- Beste batzuk.

2.- Zer esan nahi da “beste batzuk” erreferentziarekin? Informazio zehatza nahi dugu.

Iruñean, 2006ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak edo beste edozein elkarte edo erakunde publikok Inquinasa enpresari kokapen berria bilatze aldera egindako zuzemenei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak edo beste edozein elkarte edo erakunde publikok Inquinasa enpresari kokapen berria bilatze aldera egindako zuzemenei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuinek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Inquinasa, S.A. empresa prestatzen ari da gaur egun dagoen Iruñeko Etxabakoitz auzotik Nafarroako beste toki batera aldatzeko.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak eta enpresak itun bat sinatu dute.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuak, Nasuinsaren bidez, edo beste edozein elkarte edo erakunde publikoren bidez, zuzemenak egiten ari al da Inquinasa enpresari kokapen berria bilatze aldera?

– Hala bada, zer akordio eta konpromiso (epeak, lursailak, Iruñetik zenbatera...) sinatu dituzte enpresak eta Nafarroako Gobernuak?

– Noiz egingen da lekualdatzea, Nafarroako Gobernuaren ustez?

– Nafarroako Gobernuak enpresari emanen dizkion balizko laguntzen baldintza gisa jarri al du lanpostuak mantentzea? Zein modutan?

Iruñean, 2006ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

## **Galdera, Cintruénigoko Udalak 2. industrialdeko 2. faseko urbanizazioa egiteko dirulaguntza eskatu zuen eta eman zitzaion jakiteko.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Cintruénigoko Udalak 2. industrialdeko 2. faseko urbanizazioa egiteko dirulaguntza eskatu zuen eta eman zitzaion jakiteko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aur-

keztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Cintruénigoko Udalak 2. industrialdeko 2. faseko urbanizazioa egin zuen. Urbanizazioa 2 alditan egin zen: lehen aldia 268.053 euroko dirulaguntza jaso zuen; 2. aldiko urbanizazioari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

Udalak beste dirulaguntza-eskaera bat egin al zuen? Noiz egin zuen? Dirulaguntza eman al zaio edo emateko asmorik ba al da?

Eman al zaio udalari foru agindu, ebazpen, hitzarmen eta konpromisorik dirulaguntza emateko edo etorkizunean emanen zaiola bermatzeko? Noiz eta nolako hitzarmen, ebazpen edo dena delakoa?

Zenbat diru emateko konpromisoa hartu du Nafarroako Gobernuak, halakorik egin badu?

Iruñean, 2006ko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Cintruénigoko DBH ikastetxeko gimnasioa eraikitzeke esleipena egitean jarraitutako prozedurari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Cintruénigoko DBH ikastetxeko gimnasioa eraikitzeke esleipena egitean jarraitutako prozedurari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamen-

duan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Cintruénigoko Udalaren lankidetzaz, bertako DBHko ikastetxerako gimnasio bat eraiki zen. Aipatu gimnasioaren finantzazioaren %50 udalak jarri zuen, eta beste % 50, berriz, Nafarroako Gobernuak. Eraikuntza Navasfalt enpresari esleitu zitzaion.

Foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zein izan zen erabilitako kontratazio prozedura? Zenbat enpresek hartu zuten parte?

Zein izan zen enpresa parte-hartzaile bakoi-tzak aurkeztu zuen lizitazioa? Zein izan zen esleipenaren prezioa?

Zein izan da obraren bukaeran ordaindutako prezioa?

Iruñean, 2006ko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

---

## **Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Alloko laguntza zentroko obretarako egin behar duen benetako ekarpenari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI AURELIA LUMBRERAS IÑIGO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egindako galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Alloko laguntza zentroko obretarako egin behar duen benetako ekarpenari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

UPN eta CDN alderdiek "in voce" zuzenketa bat aurkeztu dute, Gizarte Ongizateko Departamentuari 380.000 euro emateko, Allo eta Sartagudako laguntza zentroi dirulaguntzak eman die-

zazkien. Parlamentuko Osoko Bilkurak zuzenketa hori onetsi du.

Zuzenketaren zioen azalpenean esatenenez, Gizarte Ongizateko Departamentuak ekimen sozialari eta udal horiei laguntza eman nahi die, beharrezkoak diren dotazioak izan ditzaten, herri horietako beharrezan araberak.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

Zein da Gizarte Ongizateko Departamentuak egiten duen egiazko ekarpen ekonomikoa Alloko laguntza zentroko lanak egiteko?

Departamentuak ba al du lankidetzaz hitzarmenik Alloko Udalarekin? Hala bada, lankidetzaz hitzarmen horren kopia nahi dut.

Inbertituko den diru kopurutik, zein da Gizarte Ongizateko Departamentuak jarriko duen ehunekoa?

Zer ekarpen egiten du udalak?

Zer ezaugarri izanen ditu Allon eraikiko den zentroak? (Egoitza, eguneko zentroa...)

Iruñean, 2006ko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Aurelia Lumbreras Iñigo

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Comptos Ganberaren objektibotasuna zalantzan jartzeko dituen datuei buruzkoa.**

### *ERRETIRATUTAKO GALDERA*

Legebiltzarrak, 2006ko abenduaren 22an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak eginiko galdera, Nafarroako Gobernuak Comptos Ganberaren objektibotasuna zalantzan jartzeko dituen datuei buruzkoa, erretiratutzat jotzea. Galdera hori

2006ko azaroaren 10eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2007rako.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legelari nagusiaren txostena ikusirik, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2007ko egutegia onestea. Hauexek izanen dira asteburutik kanpoko jaiegunak eta egun bereziak:

– Uztailaren 9a eta 10a: San Ferminetako jaiegunak.

– Uztailaren 6a eta 11 eta abenduaren 24a eta 31a: jaiegunak.

– Uztailaren 12a eta 13a: lanaldia 09:00etatik 14:30etara.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko administraziorako oro har ezarritakoak.

**2.** Ohiko lanaldia egun indarra duen berbera izanen da, astelehenetik ostiralera.

Urtarrilean, lanaldia 08:00etatik 15:00etara bitartekoa izanen da. Sartzeko 07:30ak eta

08:30ak bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:30ak eta 15:30ak bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 7 ordu benetako bete beharko dira lanean.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko 07:30ak eta 08:30ak bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00ak eta 15:00ak bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 6,30 ordu benetako bete beharko dira lanean.

**3.** Gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

a) Goizeko txanda.

b) Goiz eta arratsaldeko txanda.

c) Arratsaldeko txanda.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2007rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 107. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren ordutegi ofiziala 2007. urterako hauxe izanen dela ezartzea:

Ohiko bilkuraldiak:

– Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:30era.

17:00etatik 19:00etara.

– Larunbatak: itxita.

– Abenduaren 24an eta 31n itxita egonen da, eta horiek egun baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

Bilkuraldien arteko aldia:

– Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:00etara.

– Larunbatak: itxita.

Uztailaren 6, 9, 10 eta 11n itxita egonen da, eta horiek egun baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

**2.** Igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak ere baliogabeak izanen dira.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b>  <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urtebete ..... 43,95 euro  Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,15 »  Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,30 »</p>	<p><b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b>  <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b>  «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»  Navas de Tolosa, 1  31002 IRUÑA</p>
--	--